

ELKARTASUN KILOMETROAK



Save the Children
100 URTE



ROHINGYEI BURUZKO TXOSTENA

Dosier batek eta hezkuntza-etapetarako zenbait jardueraren proposamenek osatzen dute honako gida didaktiko hau. Irakaslearentzako tresna egoki bat izan nahi du, sentiberatze-lana osatzeko, eta, xede horretarako, beste errealitate batzuei buruzko datuak, informazioa eta ezaguerak dakartza, elkartasunean, errespetuan, lankidetzan, erantzukizunean eta horrelako balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko, zehazki.

Zuzendaria:
Marisol Paniagua

Laguntzailea:
Marisa Ortega del Val

Artea eta maketazioa:
Germán Gullón (VALBHY)



SARRERA

2019-2020 ikasturtean “Elkartasun-kilometroak” eskola-lasterketaren XVI. edizioa egingo dugu, eta neska-mutil rohingyen eskubideen alde egingo dugu korri. Gehienok ezagutzen ez dugu etnia bat da eta erabateko ahultasun-egoeran bizi da Bangladesheko errefuxiatu-esparru batean, jatorriz diren Myanmarretik ihes egin ostean.

Argitalpen honetan euren historiari, eta batez ere euren bizitzari buruzko informazioa ezagutuko duzue, baita egunerokoan dituzten zailtasunak ere, batez ere adin txikikoek, ahulene.

Gure webgunean sartzera ere gonbidatzen zaituztegu, ikus-entzunezko baliabideak (bideoak edo argazkiak, esaterako) aurkituko dituzue bertan, baina baita tragedia ezagutzen eta aurpegia ezartzen lagunduko dizueten testigantzak ere. Bide batez, zuren ikasleek ere ikus dezakete zein diren lagunduko dieten neska-mutilak.

Elkartasun-kilometro zoriontsuak



savethechildren.es/rohingya
savethechildren.es/recursos-didacticos-para-trabajar-en-el-aula



ROHINGYA: AHOSKATZEKO HITZ ZAILA, KONTATZEKO HISTORIA ZAILA

ZEIN DIRA?

Rohingyak Myanmarreko Rakhine estatuaren iparraldean biltzen diren ia milioi pertsonako herri bat da. Rohingya hitz egiten dute, bengalerako dialekto bat, eta musulmanak dira estatu budista batean. Myanmarrek herritartasuna ukatzen die Bengalako immigrantetzat hartzen dituelako eta ez birmaniar, nahiz eta mendeak daramatzaten lurralde horretan bizitzen. Munduko gutxiengo etniko eta erlijioso jazarrienetako bat da.

Jazarpen-urteen eta Birmaniako gobernu militarren eta miliziano rohingyen arteko gerraren ostean, 2017ko abuztuan miliziano rohingyek egindako erasoak ejertzitoaren errepresalia erabat bortitza ekarri zuen herri osoaren aurka eta populazioaren ihes masiboa eragin zuen alboko Bangladeshera. Soinean zutenarekin iheste egiten zuten, distantzia luzeak oinez eginez, sunsitutako lurretan, oihanean eta mendietan barrena. Azken urratsa Naf ibaia igaro eta Bangladesheko Cox's Bazar gunera iristea zen. Igeri ez zekitenak hil egiten ziren.

Cox's Bazarreko errefuxiatu-esparrura masiboki iristen zirenen kontaktak izugarriak ziren. Muturreko indarkeriazko gertaerak, behin eta berriro errepikatzen ziren hilketak, etxeak erretzea eta helduen, gazteen eta haurren aurkako sexu-abusuak.

Hanida bere familiarekin bizi zen Myanmarren erasotutako herrixketako batean. Ez zen denbora asko pasatu bere komunitatearen aurkako mehatxua sentitzen hasi eta indarkeria agertzen hasi zen arte: etxeei su eman eta arpilatu zituzten, hesiak bota zituzten eta bereizi gabe tiro egin zuten jendea inguratu nahi zuten bitartean.

“Ez nintzen nire herrialdetik joango nik hautatu behar izan banu. Dena nuen, nire etxea, nire etxaldea, nire behiak, dena. Baina joan egin behar izan nuen. Senarrak eta gizonak eramaten zituzten. Batzuetan, gizonak itzuli egiten ziren; beste batzuetan ez. Beldurra genuen eta joan egin behar izan genuen. Horregatik izan ez bazen, ez nuen inoiz nire herrialdea utziko”



Rohingyak ez dute Myanmarrera itzuli nahi beren eskubideak aitortu eta egoera seguruagoa izan arte; eta hori gertatu arte, hurrek eskolara joan behar dute esparruetan, osasuntsu jan behar duten eta osasun-arreta behar dute.

Legezko errefuxiatuaren estatusik gabe, ezin dute Bangladeshen lan egin, haurren ezin dute eskola arautura joan eta abusuak eta indarkeria jaso dezakete. Etorkizunik gabeko familiak dira eta giza erakundeek laguntza behar dute bizirauteko.

MUNDUKO ERREFUXIATU-ESPARRU HANDIENA


Bangladesheko Cox's Bazar errefuxiatu-esparru bat da, eta % 55 haurrak dira.

Giza laguntzaren erabateko mendekotasuna dute, eta arazoak eta beharrak geroz eta handiagoak dira. Pilaketa-egoera eta osasungarritasunik eza dela eta, gaixotasunak erraz zabaltzen dira, eta tenperatura baxuek haurren osasuna ahultzen du. Janaria, ur edargarria, babesak edo osasun-arreta funtsezkoak dira eurentzat.

Haur asko bakarrik iritsi dira, familiako kideak hiltzen ikusi ostean, traumekin eta elikatu gabe. Errefuxiatu-esparruan duten bizimodua oso zaila da beti.

Miloi bat

pertsona bizi da **Cox's Bazarreko esparruan**



“Oso beldurtuta nengoen, gure herriari su eman ziotenean. Toki seguru batera iritsi nahi nuen. Hasieran ibaia gurutzatzen saiatu ginen, baina ez genuen dirurik eta ezin izan genuen. Gero laguntza eskatu genion Bangladeshetik ontzi batean zetorren norbaiti, eta pasatzen utzi zigun dirurik ordaindu gabe. Orain ejertzitoko uniformea daramaten pertsonak ikusten ditudanean, beldur handia sartzen zait eta negarrez hasten naiz.”

Razia

EZ DA ERRAZA ERREFUXIATU- ESPARRU BATEAN BIZITZEA



OSASUNA ETA ELIKADURA

Neska-mutilak dira ahulenak, egoera oso prekarioan bizi dira eta aurre egin behar izaten diote elikadura ezari, azaleko gaixotasunei, arnas-arazoei, egoera txarrean dagoen ura edateak eragindako beherakoari eta bizi eta ikusi behar izan dutenaren ondoriozko estresari aurre eginez.



BABESA

Neska-mutil askok egurra edo ura biltzea bezalako etxeko lanak egoera prekarioetan egiten dituzte, euria egiten duenean eta distantzia luzeak eginez. Adin txikikoek, eta batez ere neskek, erasotu eta abusuren bat jasateko beldurra dute. Esparruko komun eremuari pribatutasuna falta zaio eta neskak beldurtuta joaten dira bakarrik.



HEZKUNTZA

Esparruko baldintzek eta gune egokiak faltatzeak neska-mutilen hezkuntzari eragiten dio, ez dute bizitako traumak gainditzen laguntzen duen joko-gunerik eta pilaketak ez dio mesede egiten hezkuntzari.

Lagundu gabeko adin txikikoak, jaiotzen diren haurtxoak **eta 5 urtez azpiko haurrak dira talde ahulenak.**

Ez naiz eroso sentitzen gizonek komunitara joaten ikusten nautenean, eta ez dago neskak eta emakumeak bainatzeko gune pribaturik.”

Rehana

BEHARRAK PRESAZKOAK DIRA

- **Populazioaren % 100ak** behar du elikagai-laguntza.
- **453.000 haurrek** ez dute inolako hezkuntzarik.
- **36.000 familiek** babesteko gune seguru bat behar dute.
- **5 urtez azpiko 62.811 haurrek** desnutrizioa gainditzeko tratamendua behar dute.
- **120.000 emakume haurdunek** eta bular-emailek osagarri nutrizionalak behar dituzte lehenbailehen.
- **Bakarrik dauden 36.373** adin txikikok babesa behar dute.

ZER ARI EGITEN SAVE THE CHILDREN?

Bangladeshen 160 milioi pertsona bizi dira, eta Asiako herrialde txiroenetako bat da. Ez dago gaituta, eta ez du baliabiderik, rohingya errefuxiatuen ardura bere gain hartzeko.

Save the Children-ek:

- **Larrialdiko** babesa, **janaria eta oinarritzko sukaldeko tresnak** ematen dizkiegu, eta errefuxiatu-eremura iritsi ginenetik 30.000 familia baino gehiago artatu ditugu.
- Larrialdietarako gure osasun-unitateak mediku, erizain eta legelari adituen talde bat du, osasun-, elikadura- eta higie-ne-laguntza emateko, eta gaixotasunak ez zabaltzeko lan egiten du. Lehen arretako **bederatzi osasun-zentro** zuzentzen ditugu Cox's Bazarren. **Ama eta haurtxoentzako eremu berriak jarri ditugu abian**, muturreko desnutrizio-kasuen tratamenduak eta horien jarraipena egiteko.
- 30.000 familia baino gehiagori **higie-ne-gaiak** banatu zaizkie, gaixotasunak zabaltzea eragozteko eta 500 komun baino gehiago instalatu dira.
- Bakarrik iristen diren edo familia galdu duten haurrak babesteko sistemak ezarri ditugu. Haurrentzako **86 gune seguru** ditugu, haurrak jolastera joan daitezen. Eta **aldi baterako 110 ikastetxe** ditugu abian, non eskola-materiala banatu eta eskola ematen zaien 10.000 haurri baino gehiagori.

Save the Children 1970az geroztik dago
Bangladeshen **eta 2012tik ari gara lanean**
rohingyen krisian Cox's Bazarren.

GELARAKO PROPOSAMENAK

Hezkuntzak besteen errealitateak ezagutzen, ulertzen eta sentitzen laguntzen du, funtsezko gauzei buruz hausnartzen ere bai, mundua egoki garatzeko. Guztiok dugu errespetuz eta baztertu, behartu edo manipulatu gabe tratatuak izateko eskubidea. Save the Children-ek berdinen arteko lankidetzak bultzatu nahi dugu, munduko neska-mutilen duintasuna gerturatzeko.

Proposatutako material didaktikoak munduko pertsona desberdinen egoerei begiratzeko beste modu batzuetara hurbiltzen gaitu, nartzisismoa eta egozentrismoa alde batera utzi eta justiziaren, eskubide-berdintasunaren eta duintasunaren alde parte hartzearen mesedetan.

Helburuak

- Hezkuntza-komunitatean indarkeriagatik jatorrizko herrialdetik ihes egin behar izan duen rohingya etnia ezagutzera ematea.
- Bizitza hobetzen laguntzeko beharrezko jarrerak, emozioak eta sentimenduak piztea, oro har, eta neska-mutil babesgabeena batez ere.
- Bizitzaren aldeko parte hartzea erraztea neska-mutil rohingyen duintasunarekin.

Edukiak

Etnia, rohingyak, tratua, adeitasuna, babesa, zaintza, nortasuna, babesa, segurtasuna, errefuxiatuak, ametsak, mugak, gatazka, sentimendua, berdintasuna, segurtasuna, laguntza, indarkeria, esperientziak, bizitzarako balio eta jarrera baikorrak eta ezkorrak.

Eskumenak

- Entzumena, asimilazioa eta analisisia
- Interesa, enpatia eta ulermena
- Hausnarketa, elkarrizketa eta lankidetzak
- Sormena eta adierazpena
- Talde-lana, negoziazioa eta kooperazioa
- Esperientzia, erantzukizuna eta ebazpena

Jarduerak diseinatzean, hezkuntza-maila desberdinetako curriculumeko **ikaskuntzara** doitzen diren hiru **prozesu**-metodologiko hartzen dira aintzat:

- **EZAGUTU:** informazioa entzuteko, ezagutzeko eta ulertzeko prozesua.
- **HAUSNARTU:** banako eta taldeko ondorioetara iristeko analisi-prozesua.
- **PARTE HARTU:** komunitatearen aldeko ekintza eta sorkuntza arduratsua, xede gisa justizia eta aukera berdintasuna izanez.



“UKIMEN JAUNA”

Adina: 3-6 urte

35-45 min

PROPOSAMENA

Erabili ukimena adeitsuak izan eta maitasuna adierazteko, ukimenaren bidez objektuak bilatuko ditugu, neska-mutilek ukimena eta besteen beharra korrelazioan jartzeko.

MATERIALA

Kartoizko 5 edo 6 kaxa itxi irekidura borobil batekin albo bakoitzean (irekidura bat parte hartzaile bakoitzeko) eskuak sartu eta barnean diren objektuak ezagutzeko. Adin bakoitzerako egokiak diren objektuak (kaxa guztiek ariketa egiteko objektuak izan behar dituzte: lokarriak, belakiak, lumak, lastotxoak, kotoia, gasak, argizarizko margoak eta egoki jotzen diren beste elementu batzuk izan behar dituzte).

ZER EGIN

Ukimenaren bidez ikertzen dugu (10-15 min)

Barruan objektuak (gauza leunak, forma desberdinetakoak, gauza gogorra, luzeak, bigunak, laburrak, zimurrekin...) dituzten itxitako kartoizko kaxak banatzen dira gelan. Haurrek eskua sartzen dute eta ukimenaren bidez ikertzen dira objektuak.

Ukimen jaunari buruzko elkarrizketa-txanda (10 -15 min)

Bildu eta irakasleak azaltzen du Ukimen jaunak ezagutzeko, aztertze eta ukitzeko balio duela, Ukimen jauna azaleko begiak bezala dela. Adeitsua izatea da Ukimen jaunaren gauza onenetako bat; kaltetzea eta bultzatzea, aldiz, dira Ukimen jaunaren gauza okerrenak. Gurekin Ukimen jaun zintzoa izatea funtsezkoa da, sentitzeko, zoriontsu izateko, maitatzeko eta hitz egiteko.



Objektuak bilatzen ditugu ukimenarekin, gure babesa behar duten haur rohingyentzat (15 min)

Euren etxeetatik ihes egin behar izan duten eta errefuxiatu-esparruetan dauden haur rohingyentzako objektuak aurkitzera gonbidatzen du taldea irakasleak:

- Nur ordu asko ibili da errefuxiatu-esparrura iristeko, oinak minduta ditu, zapatila batzuk eman dizkiote, baina **lokarriak** behar ditu.
- Sentiak 10 urte ditu, triste eta beldurtuta dago etxetik ihes egin behar izan duelako; asko gustatzen zaio margotzea eta **margotzeko** gauzak behar ditu ongi pasatzeko.
- 6 hilabeteko haurtxo bat jaio da errefuxiatuen esparruan, **gauza leunak** behar ditu, horrela askoz ere lasaiago sentitzen delako.
- Uholde-urek errefuxiatu-esparrua lokatzez betetzen dute, Lailak, batzuetan, makiltxo magiko bat duela imajinatzen du eta lokatza eta etxeak bizitzeko askoz ere hobeak diren beste batzuetan bihurtzen ditu. Lailaren ametsa egia bihurtzeko **makiltxo magikoak** bilatuko ditugu.
- Marrek entzumena kaltetuta du kolpe gogor baten ondorioz. Ongi sendatu behar du entzumena, belarria ongi tapatuta **kotoiarekin eta bendarekin** zikinik ez sartzeko.

IRADOKIZUNAK

Aldez aurreko lan gisa, “Ukimen jauna” jardueraren berri emango diegu familiei eta etxetik ukimenerako interesgarriak diren objektu txikiak ekartzeko eskatuko diegu, haurrek ikusi gabe.

Jakinaraziko diegu familiei euren parekoek laztanak, maitasunak eta zaintzak emateak haurren autoestimua handitzen dutela eta emozionalki eraikitzen laguntzen dietela, gure maitasunak adin desberdinetan sortzen diren beldur naturalak kudeatzen laguntzen diela, sentsibiltate-maila osasungarri bat bultzatuz.

Irakasleak egoera gehiago sor ditzake haur rohingya errefuxiatuekin, objektuak ezagutzen jarraitzeko.

Jardueraren fase desberdinetan erabilitako denbora gutxi gorabeherakoa da, luzatu edo laburtu egin liteke irakaslearen eta parte-hartzaileen adinaren irizpidearen bidez.

AMAIERAN

Jarduera amaitzeko, elkartasun-lasterketan parte hartuko dugula jakinaraziko diegu neska-mutil rohingyek bizi-baldintza onetan eta indarkeriarik gabe bizi daitezen.





“GLOBOREN ISTORIOA”

Adina: 6-9 urte

50 min

PROPOSAMENA

Haurrek Globoren istorioari buruz hausnartzea, zaintza-irizpide bat izateko eta indarkeriaren, bidegabekerien eta eskubide-urraketen aurrean bazterketa-jarrera bat izateko beharrari buruz.

MATERIALA

Globoren istorioa, arkatzak, boligrafoak, paper bat parte-hartze bakoitzeko, galdera honekin: zer uste duzu ikasi duela Globok?, koloretako margoak, kola, errotuladoreak eta paper jarraitua horma-irudia egiteko.

ZER EGIN

Globoren istorioa kontatzea (10 min)

Irakasleak Globoren istorioa irakurtzen du: “Globori izugarri gustatzen zaio formaz aldatzea, dagoen horren arabera forma bat edo beste bat hartzen du, lauki batekin badago lauki bihurtzen da, telefono batekin badago telefono bihurtzen da, limoi batekin badago limoi forma hartzen du, labana batekin badago laban bihurtzen da, pistolarekin badago pistola egiten da, tanke batekin badago tanke...”

Bere lagunak izututa daude, ezin dute ezagutu, “nor zara?” galdetzen zioten. Ez zaigu gustatzen pistola, laban edo tanke bihurtzen zarenean... Ez zaigu gustatzen indarkeria, ez zaigu gustatzen gorrotoa, ezta bortxaketak ere... Lagunak Save the Children-ekin harremanetan jartzea erabaki zuten, Globok haur rohingyak ezagut zitzan, muturreko indarkeria, diskriminazioa eta jazarpena gainditu behar izaten dituzten haur musulmanak, bere herrialdetik ihes egin eta ondoko herrialdeko errefuxiatu-esparru batera joateko kilometro asko ibili behar izan dutenak. Beldurrez bizi dira, pobreak dira eta oso kezkatuta daude beren bizitza nolakoa izango den indarkeria dela eta. Globok hori ikustean zera esan zien lagunei: “oso gauza garrantzitsua ikasi dut”.

Globok zer ikasi zuen ezagutuko dugu (10 min)

Irakasleak paper bat banatuko dio parte-hartzaile bakoitzari “Zer uste duzu ikasi duela Globok?” galderarekin, minutu batzuk utziko ditu erantzuteko, erantzunak bildu eta poltsa batean sartuko ditu. Erantzunak anonimoak izango dira.

Erantzunak elkarrekin partekatzea (30 min)

Irakasleak taldeko parte-hartzaile bakoitzari erantzun-poltsatik ausaz paper bat hartzeko eskatuko dio, irakur dezala eta horma-irudian itsasteko. Erantzun guztiak irakurtzean, irakasleak zera idatziko du horma-irudian ongi ikusteko moduan: *“Guztiak bakarrak gara eta errespetuz trata gaitzaten eta errespetuz tratatzeko eskubidea dugu. Diskriminaziorik gabe. Hau ikasi zuen Globok.”*

Ondoren, Globoren istorioa horma-paperan itsatsiko du eta parte-hartzaileei horma-irudia margoekin apaintzera gonbidatuko ditu.

IRADOKIZUNAK

Irakasleak berriro irakur dezake istorioa, hori egitea beharrezko ikusiko balu.

Parte-hartzaileen adinaren arabera, ikasitakoari buruz hausnartzeko mahai-inguru bat egin liteke, edo talde-lan bat egin liteke, ondoren, guztien artean komentatzeko. Ariketa adin gehiagoko haurrei ere molda daiteke.

Egindako horma-irudiari argazki bat atera eta Save the Children-era bidaltzea gonbidatzen dizuegu.

AMAIERAN

Azalduko da elkartasun-lasterketarekin laguntza bilatu nahi dela, haur rohingyek duintasunez eta indarkeriarik gabe bizitzeko aukera izan dezaten.





“KARTEL HANDIA PEPATXORENTZAT”

Adina: 9-12 urte

55 min

PROPOSAMENA

Parte-hartzaileek Papatxo andreari rohingya etnia ezagutzen laguntzea, beren egoera zein den eta zergatik den hain garrantzitsua laguntzea.

MATERIALA

Rohingyei buruzko informazioa (elkartasun-lasterketaren txostena, bideoak, Save the Children-en webguneko artikulak...), kartulinak, errotuladoreak, kola, pinturak, taldeentzako jarraibideak.

ZER EGIN

Egoeran jartzea (5 min)

Irakasleak azaltzen du: “Papatxo San Juan Palentzian 65 urteko andre bat da, eta Save the Children-ekin harremanetan jarri zen mundua hobetzen lagundu nahi duelako. Save the Children-ek elkartasun-lasterketa babestea proposatu zion, haur rohingyak duintasunez eta indarkeriarik gabe bizi daitezen laguntzeko. Papatxok haur horiek ezagutu behar ditu, egoerari buruz hausnartu eta bere babesa garrantzitsua dela sentitu.”

Laguntzeko jarraibideak (15 min)

Irakasleak kontatzen du Save the Children-ek gure laguntza eskatu duela Papatxori bere laguntza garrantzitsua dela azaltzeko, eta jarraibide argi batzuei jarraitzeko eskatzen ditu:

1. Egin 3-5 parte-hartzaileko taldeak, eman talde bakoitzari kartulina bat, errotuladoreak eta margoak.
2. Idatzi letra politarekin kartulinako gune ikusgai batean “Haur rohingyak”. Gogoratzea zaila den hitza da, eta azpimarratu egin behar da.
3. Zatitu gainerako kartulina hiru gunetan, eta gune bakoitzean idatzi galdera hauek:
Zein dira haur rohingyak?
Zein arazo dituzte?
Zergatik beha dute zure laguntza?
4. Eskatu irakasleari non lor dezaketen rohingyei buruzko informazioa, eta eman erantzun oso argiak eta errazak Papatxok egindako galderei, hark uler dezan.

Kartel handi bat egingo dugu (15 min)

Guztien artean talde bakoitzak egindako kartelak ikusiko ditugu eta taldeko kartel handi bat egingo dugu, eta argazki bat atera edo bideo bat egingo dugu Save the Children-i bidaltzeko, lankidetzan aritzea oso garrantzitsua dela uler dezan jendeak.

IRADOKIZUNAK

Garrantzitsua da Save the Children-en bideoak ikusi eta haur errefuxiatu rohingyen errealitateari buruzko informazioa lortzea.

Ariketa adin gehiagoko haurrei ere molda daiteke.

AMAIERAN

Adierazten dugu ekintzak komunitate batean emaitza direla, eta batek bere ongi egitearekin laguntzen badu, pertsona hori hazi egingo dela. Horregatik dela hain garrantzitsua elkartasun-lasterketa gisako ekintzetan parte-hartzea, neska-mutilek duintasunez bizitzeko aukerak izan ditzaten babesteko komunitatea eratzen dugulako.





“LORTU BEHARREKO MISIOA”

Adina: 12-15 urte

50 min

PROPOSAMENA

Parte-hartzaileek izarrarteko bi espazio polarizatutan daudela imajinatzea, goiko espazioa eta beheko espazioa, bizitzarako balio baikorretan eta balio ezkorretan zatituta. Bi espazioetako pertsonak lan-taldeetan nahasten dira rohingya etniako haurrek bizitza duin bat lortzeko misioa babesteko. Zer gertatuko da?

MATERIALA

Paper bat ikasleko gela bi espaziotan zatitzeko, goikoa eta behekoa; boligrafoak; errotuladoreak; kartulinak eta papera.

ZER EGIN


Gela izarrarteko bi espaziotan zatituko dugu (10 min)

Irakasleak azaltzen du imajinatzeko bereizitako izarrarteko bi espaziotan gaudela, eta handik lurra ikusten dugula eta antolatu egiten dugula: “Goiko espazioa” ilusioak, konfiantza, ametsak eta pentsamendu onak dituzten pertsonen osatutakoa. Eta “Beheko espazioa” gezurtiak, berekoiak, hipokritak, faltsuak eta zakarrak diren pertsonen osatutakoa.

Parte-hartzaile bakoitzari paper bat ematen zaio gela goiko eta beheko espazioan banatzeko eta minutu batzuk emango ditugu egokitu zaigun paperean sartzeko.

Lan-taldeak egingo ditugu espazioak nahasteko (5 min)

Parte-hartzaileek bost kideko lan-taldeak osatu behar dituzte bost minututan, goiko eta beheko espazioko biztanlez osatuta.



Misioa beteko dugu taldeka (15 min)

Lan-talde bakoitzak misio bat bete behar du: “*Rohingya etnia duintasunez bizitzeko garrantzitsuak diren jarrerez, balioz eta gauza garrantzitsuz betetako tunelak eraikitzea*”. Taldeka kartulinak eta errotuladoreak banatzen dira misioa betetzeko harriekin eraikitako tunelak irudikatzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da guztiak, goikoak nahiz behekoak, ados egotea balio eta jarrera horiek garrantzitsuak direla.

Taldeko esperientzia guztien artean partekatzea (20 min)



Talde bakoitzak zer gertatu den azaldu beharko du: misioa lortu al da?, zein zailtasun izan dira?, zer ondorioztatu da?

IRADOKIZUNAK

Garrantzitsua da jarduera egin baino lehen, Save the Children-ek errefuxiatu rohingyei buruz landutako informazioa (artikuluak eta bideoak) ezagutzea.

AMAIERAKO GALDERA

Zer ikasi duzu egindako jardueran?





40 min.

“INDARKERIA AHULDUKO DUGU”

PROPOSAMENA

Rohingyen aurkako indarkeria irudikatzen duten hiru armiarma-sare desagitea lortzea. Armiarma-sare bat ehunduko dugu artile-harilko bat pertsona batzuetatik besteetara bidaliz, eta indarkeria ezabatzea irudikatzen duen artile-mataza berriro harituko dugu, eta harilkoa nahasten eta askatzen den bakoitzean parte-hartzaile bakoitzak indarkeria sortzen eta desagiten duten hitzak bidaliko ditu.

MATERIALA

Hiru artile-harilko (parte-hartzaile bakoitzeko zenbait metroekin).

ZER EGIN

Gela hiru taldetan banatzen da (5 min)

Irakasleak gela hiru taldetan banatuko du, borobilean jarriko dira eta talde-bakoitzari harilko bat emango dio.

Indarkeriaren armiarma-sarea ehuntzea (15 min)

Talde bakoitzeko parte-hartzaileak dauden tokian geratuko dira, indarkeriaren armiarma-sareak ehuntzen hasiko dira, lehenak artile-harilkoa beste bati bidaliko dio artilearen hasierarekin geldituz, bigarren horrek ere artileari eutsi eta beste bati bidaliko dio harilkoa, eta horrela hurrenez hurren, parte-hartzaile guztiek artilea eskuartean izan arte. Parte-hartzaileak armiarma-sarea ehuntzeko harilkoa bidaltzen duen bakoitzean, indarkeria irudikatzen duen hitz bat esango du ozen (gerra, diskriminazioa, iraina, tratu txarra...).



Indarkeria desagitea (20 min)

Armiarma-sarea ehundu ostean, artile-harilkoa eskuartean duen azken pertsonak harilkoa bildu eta oinez hasiko da mataza desaginez eta aldi berean bidali dioten hitzaren aurkako bat esango du (adibidez, gerra - bakea), mataza beste ikaskide batengana iristen denean, erreleboa emango dio harilkoarekin sarea desagiten jarrai dezan, eta hark oinez jarraituko du eta bidalitako hitzaren aurkakoa esanez, eta horrela jarraituko da parte-hartzaile guztiek parte hartu arte, eta mataza berriz harilko bihurtu arte.

IRADOKIZUNAK

Gela bi taldetan banatuta egiten ere proba daiteke.

Jarduera berriz egin liteke, baino denbora kalkulatuta, ahalik eta azkarren egiten saiatzeko.

AMAIERAN

Irakasleak Elkartasun-lasterketan parte-hartzeak zer-nolako garrantzia duen azaltzen du etorkizunean haur rohingyak indarkeriarik gabe eta duintasunez bizi daitezen laguntzeko.



PREGUNTAS FRECUENTES SOBRE LA CARRERA SOLIDARIA



Nor dira babesleak? Enpresak bilatu behar ditugu?

Normalean, babesleak ikasleen senitartekoak dira (aita, ama, aitona-amonak...), eta babes hori ekarpen txiki bat izan ohi da. Zenbat eta babesle gehiago, orduan eta handiagoa izango da sentsibilizazioa, eta hobe da ikaskuntza ere.

Lasterketak egun jakin batean izan behar du?

Ez, ikastetxeari egokien iruditzen zaion egunean egin dezakezue lasterketa. Jaiegun dibertigarria izan daiteke, elkartasuna jorratzeaz gain.

Parte-hartzaile gehiago izanez gero, eska dezakegu material gehiago?

Bai, material gehiago eska dezakezue, helbide honetan: carrera@savethechildren.org, edo telefonoz ere eska dezakezue. Egun gutxiren buruan jasoko duzue ikastetxean.

Ikasleengandik dirua jaso ondoren, nola helaraziko zaio Save the Children erakundeari?

Babesleen dirua bildu ondoren, honako kontu honetan sartuko du dirua ikastetxeak:

BANCO SANTANDER
ES55 0049 1837 5620 1024 9000

Transferentzia bidez edo dirutan egin dezake.

Diru-sarrera zuzenean dirutan eginez gero, izan dezakegu arazorik?

Banketxearen bulegoaren baitan dago hori. Banketxe horren bulegora joan aurretik, gomendio bat: gure webgunean, atal batean, zenbait aholku eta dokumentu aurkiko dituzue, diru-sarrera egiteko orduan bankuan zailtasunik ez izateko lagungarri gerta dakizkizuenak.



[savethechildren.es/actualidad/
ya-tengo-mi-recaudacion-ahora-que](https://savethechildren.es/actualidad/ya-tengo-mi-recaudacion-ahora-que)

Bildutako dirua sar dezakegu beste banketxe batean

Baditugu kontuak beste banketxe batzuetan ere. Kasu horretan, jar zaitezte harremanetan, mesedez, Ikastetxeetako Programen sailarekin. Diru-sarrera egiteko erabil ditzakezuen beste banketxe batzuetako kontuak emango dizkizuegu, eta zer pauso eman ere azalduko dizuegu.

Garrantzitsua da diru-sarrera egin duen ikastetxearen izena azaltzea?

Bai, berebiziko garrantzia du **izena eta udalerrria** argi uzteak. Hala, gure esker ona adierazteko diploma igor dezakegu ikastetxera, eta hezkuntza-elkarte osoari zabal diezaiokezue gure esker ona horrela.

Zalantzarik badugu, non eta norekin argitu dezakegu?

Ikastetxeetako Programen sailarekin harremanetan jar zaitezke, helbide hauen bidez:

Tel.: 91 513 05 00



carrera@savethechildren.org
sol.paniagua@savethechildren.org (Marisol Paniagua, programen koordinatzailea)
nieves.garcia@savethechildren.org (Nieves García, ebaluazio-teknikaria)

Eskolako hurrei Afrikako herrialde txirotuetako neska-mutilen egoera gerturatzeko dien hezkuntza-proposamena da **Elkartasun-kilometroak**, Save the Children erakundeak abian dituen haurrak bizirik irauteko proiektuetarako funtsak lortzeko eta haurren eskubideak ezagutzeko, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

Laguntzaileak:

**TOURLINE[®]
EXPRESS**
Como si lo llevaras tú mismo



**BIZIRIK IRAUN
IKASI
BABESTUTA IZAN**



Save the Children